

BISITARIAK TELESFORO BRAVO BIDERA SARTZEKO ARAUAK (RAMBLETA-TEIDEKO GAINA)

1.- Arau hauetan, bisitaritzat hartzen dira banaka edo taldeka, berez edo antolatuta, Teideko Parke Nazionalera joaten diren pertsonak, haren edertasunaz, balio ekologikoez, naturaltasunaz eta ingurumen-kalitate handiaz gozatzeko helburuz. Arau hauetatik kanpo geratzen dira Parke Nazionalean egindako jarduerak, lan egiteko, ikasteko eta zerbitzu publikoak emateko badira edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoirengatik bada, betiere Parke Nazionaleko Administrazioak jarduera garatzeko baimena eman badie.

2.- Telesforo Bravo bidea da Teideko gainera heltzeko baimendutako bide arrunt bakarra, eta bisitariak ez du baimenik uzteko. Gainera, aldeztatik baimena eskatu behar da.

3.- Une jakin batean, gehienez, 50 pertsona egon daitezke bidean, hortaz, ez dago 50 bisitari baino gehiago aldi berean egoteko baimenik.

4.- Kraterrera sartzen eta hura inguratzen duen bidearen tartean, gehienez, 10 pertsona egon daitezke; hortaz, ezin daitezke egon aldi berean 10 bisitari baino gehiago tarte horretan.

5.- Bisitariak ezin du kraterra guztiz inguratu, ez eta barrura sartu ere, Erreserba Eredu moduan deklaratu baitute.

6.- Parke Nazionaleko Administrazioak bidearen hasiera eta bukaera behar bezala mugatu eta seinaleztatuko du.

7.- Telesforo Bravo bidera sartzeko, Parke Nazionaleko Administrazioaren baimena beharko da, eta, hala badagokio, dagokion sarbide baimena emango du. Hiru aukera edo baimen mota daude:

a) Pico del Teidera oinez sartzeko baimena Telesforo Bravo bidetik 09:00etatik 17:00etara doan ordu-tartean barruan.

b) Telesforo Bravo bidetik Pico del Teiderako mendi-jardueraren baimena goizeko 6etatik 9etara eguzkia gailurretik ikusteko, teleferikoen ordutegitik kanpo. Bide hori goizeko 9ak baino lehen utzi izana esan nahi du.

c) Telesforo Bravo bidetik Pico del Teidera sartzeko mendi-jardueraren baimena 18:00etatik 22:00etara, ilunabarra gailurretik ikusteko, teleferikoen ordutegitik kanpo.

8.- Pico del Teidera sartzeko baimena zuzenean izapidetu ahal izango du interesdun bakoitzak, eta dagokion baimenean gehienez ere 9 lagun arteko kopurua sartzeko eska dezake (betiere leku nahikoa badaude).

9.- Taldeak hobeto kontrolatzeko, baimenaren a) modalitatearen barruan, 09:00etatik 17:00etara, eskatutako jarduera egiteko bi orduko tartea ezartzen dira, eskatzaileak ordutegi horietako bat aukeratu beharko baitu. Atalak hemen daude ezarrita:

- 09:00 - 11:00 h.
- 11:00 - 13:00 h.
- 13:00 - 15:00 h.

- 15:00 - 17:00 h (tarte hau bereziki aukeratzen duten pertsoneri ohartarazten zaie teleferikoaren azken kabinak, normalean 16:30ean jaisten direla, edo lehenago, neguan batez ere).

Eskatzaile batek ezin dezake eskatu egun berean ordutegi-tarte bat baino gehiago, ez eta baimen bat baino gehiago aste berean (bat, zazpi eguneko), arrazoi tekniko edo meteorologikoak direla-eta teleferikoa edo bidea hiru egun baino gehiago jarraian itxita egon badira salbu, hasiera batean eskatutako egunean Teidera igotzea eragotzita.

10.- Baimena honela bidera daiteke:

- Internet bidez, Parke Nazionalen Erakunde Autonomoaren web orrian, eta erreserbazentralean zehazkiago: <http://www.reservasparquesnacionales.es>.

Teideko Parke Nazionalaren administrazio-bulegoan baliabide hori ere erabil liteke (Internet) baimenak bideratzeko, baina Parke Nazionalak ez du erantzukizunik izango sartu ezin bada edo baliabiderik ez badu une jakin batean izapide hori egiteko.

Baimenak, bidea erabili nahi den aurreko eguneko 14:00ak arte bidera daitezke.

Hala ere, baimena lortzeko leku librea egon beharko du, noski.

11.- Baimena egun jakin baterako eta eskatzaileak aukeratutako ordutegi-tarte baterako emango da, betiere gehieneko pertsona kopurua gainditzen ez bada eta Arau hauetan jasotzen diren baldintzak errespetatzen badira; 3., 8. eta 12. puntuak bereziki.

Bisitari asko teleferikoa erabiliz joaten direnez, eta arrazoi tekniko edo klimatologikoak direla-eta urteko egun askotan ezin denez erabili, teleferikoa berriz erabilgarri dagoen lehen egunean –horretan bakarrik- erabili ahal izango da baimena, eskabidean adierazitakoa kontuan hartuta. Hala ere, eskabidean adierazitako egunetik hiru egun igaro arte bakarrik balioko du salbuespen horrek, hirugarrena barne, nahiz eta eguraldia ez aldatu eta teleferikoak itxita jarraitu. Arrazoi horiek direla-eta, egun eta ordutegi-tarte berean, 3. puntuan adierazitakoaren arabera, baimendutakoak baino pertsona gehiago egongo balira, uneko egunean baimena eskatu dutenek eta haien laguntzaileek lehentasuna izango dute. Horrela, arestian adierazitako arrazoiengatik baimenean adierazitako egunean Teideko gainera igo ezin izan zuten pertsonak, Parte Nazionalako langileek Telesforo Bravo bidera sartzeko baimena arte itxaron beharko dute, Arau hauetako 3. puntuan adierazitako gehieneko pertsona kopurua bete denean.

12.- Gehienez ere hogeita hamar (30) plaza erreserbatzen dira lehenengo denbora tartean (9-11) eta beste hamar (10) plaza hirugarren denbora tartean (13-15), profesional dedikatuek (gidak) eskatu ahal izango dituztenak. . Tenerife uhartean kokatutako edo bulegoren bat duten turismo-enpresek edo turismo aktiboko enpresek kontratatutako bisita gidatuak egitea, eta horien gidariak jarduera hau behar bezala garatzeko dagokion titulazio ofiziala badute, eta Kanarietako Gobernuak emandakoa. Horrez gain, Teide Parke Nazionalan gidari gisa jarduteko ezagutzaren egiaztagiria dutela, babestutako eremu horretako Patronatuak emandakoa. Ondorio horietarako, Erregistro bat ezarriko da eta bertan goian aipatutako baldintzak betetzen dituzten gidariak izena eman ahal izango dute.

13.- Baimenean jasotzen diren pertsona guztiek NAN originala edo behar bezala konpultsatutako NANren kopia, pasaportearen edo beste edozein nortasun-agiri ofiziala izan

beharko dute Telesforo Bravo bidera sartzeko. Horrela, derrigorrezkoa izango dute Parkeko langileei erakustea, hala eskatzen badiete. Eskatzaileak nortasun-agiria aurkezten ez bada, baimena berehala baliogabetuko da, eskatzailearentzat eta haren laguntzaile guztientzat. Halaber, Teideko Parke Nazionalako langileek eskubidea dute nortasun-agiri ofiziala aurkeztu nahi ez duen laguntzailea Telesforo Bravo bidera sartzeko ez uzteko.

Baimenak ez du baliorik eskatzailea aurkezten ez bada.

Justifikaziorik egon ezean, baimena duten eskatzaileek, adierazitako egun eta orduan erabiltzen ez badute, ezin izango dute beste baimenik eskatu hiru hilabete igaro arte.

14.- Dagozkion baimenak lortzeko beharrezkoak diren baldintzak eta izapideak jakinarazte aldera, Kanarietako Gobernuaren, Ingurumen, Landagune eta Itsas inguruneko Ministerioaren eta Tenerifeko Irlako Kabildoaren web orrietan irauliko da arautegi hau.

15.- Altavistako Aterpean gau ematen duten pertsonak, egunsentia ikusteko bukaerako konora goiz joango direnez, ez dute baimenik eskatu beharko Teideko gainera sartzeko. Horren ordeztan, egun horretan Aterpean gaua eman dutela egiaztatzen duen eskaeraren kopia aurkez dezakete, "Altavistako Aterpearen Arautegiari buruzko 2009ko uztailaren 29ko erabakiaren jakinarazpenaren" 7. artikuluan zehazten den moduan. Pertsona horiek egun bereko goizeko bederatzietan utzi beharko dute Telesforo Bravo bidea. Ordu hori baino beranduago Telesforo Bravo bidetik ibiltzeko, sartzeko baimen arrunta eskatu beharko da.

16.- Eskatzaileak bere gain hartzen dituen eremu horretatik igarotzean dagoen arriskuarengatik gerta daitezkeen istripuen arriskuak.

17.- Teideko Parke Nazionalak ez du erantzukizunik izango jarduera hori garatzean gerta daitezkeen gorabeheretan.

18.- Eguraldia (izotza eta elurrarengatik nagusiki) edo beste arrazoi batengatik Telesforo Bravo bidetik ezin bada ibili edo gutxieneko segurtasun-bermeekin ezin bada joan, Parke Nazionalako zuzendaritzak Teideko gainera joatea debekatu ahal izango du. Horrela, beharrezkoa den denboran itxiko du, eta nahiz eta baimena aurretik lortu, pertsonen handik joaten ez die utziko.

Gai direla eta baliabide egokiak dituztela (mendiko ekipamendua, bereziki botak, kranpoiak eta pioletak) behar bezala justifikatu eta Espainiako Mendi Kirolen eta Eskalada Federazioko lurralde federazioren batek bermatutako eskaera aurkezten duten mendizale federatuek baimen berezia eska dezakete lurra izotz edo elurrez beterik balego; baita Telesforo Bravo bidea itxita egongo balitz ere. Kasu horretan, aldeztu aurretik eskaera eta azterketa eginda, Parke Nazionalako Administrazioak berariazko baimena eman ahal izango du Erabilera Mugatuko Eremuetatik igarotzeko (elurrez beterik egongo balira) edota Teideko gainera joateko. Eskatzaileek bere gain hartuko dituzte lurraren arrisku bereziak ekarritako arriskuak, gerta daitezkeen istripuak eta inguruen egin ditzaketen kalteak. Teideko Parke Nazionalak ez du erantzukizunik izango jarduera egitean gerta daitezkeen gorabeheretan.